


eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

# Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen gida. PRACTICUM I, II eta III

### III. PRACTICUMAREN PLAN OROKORRA

#### Aurkibidea

1	TESTUINGURUAN JARTZEA.....	3
2	HELBURUAK .....	5
3	GAITASUNAK.....	6
3.1	HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK .....	6
3.2	LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK.....	7
4	AURRE PRESTAKUNTZA. JARRAIPEN MINTEGIAK.....	8
5	TUTORIZAZIOA.....	9
6	PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILE BATZUEN FUNTZIOAK .....	10
6.1	Praktika Dekanordetza .....	10
6.2	Ikastetxeko irakasle-tutorea.....	10
6.3	Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorea.....	11
6.4	Ikasleak .....	12
7	EBALUAZIOA .....	13
8	PRAKTIKETAKO TXOSTENARI BURUZ.....	14
9	MEMORIAK ITZULTZEA PRAKTIKETAKO IKASLEEI.....	15
10	KRONOGRAMA .....	16
11	BIBLIOGRAFIA .....	17

# 1 TESTUINGURUAN JARTZEA

Practicum-modulua bi ikasgaitan antolatzen da:

- Ikastetxeko praktikak (38 ECTS kreditu)
- Gradu-amaierako lana (12 ECTS kreditu)

Ikastetxeko praktikak Haur Hezkuntzako bi zikloetan (0-3, 3-6) eta Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan egingo dira (1., 2., 3., 4., 5. eta 6. mailak). Practicum progresiboa denez, graduako ikasleek bigarren, hirugarren eta laugarren ikasturtean egiten dute ikasgaia (I. Practicuma, II. Practicuma eta III. Practicuma). Edukiek jarraitutasuna dute, eta ikasturte bakoitzean landutakoek aurreko mailetan landutakoek baino gaitasun handiagoa erakutsi behar dute.

Practicumak aukera ematen die ikasleei beren lanbiderako gaitasunak, ezagutzak, trebetasunak eta praktika lortzeko eta integratzeko. Halaber, egindako ikasketa eta praktikei buruz banaka zein taldeka hausnartzeko abagunea ere badute.

Ikasgaiaren kredituak honako taula honetan ikusten den moduan banatzen dira:

	<b>Ikasturtea</b>	<b>Haur Hezkuntzako Gradua</b> (38 kreditu)	<b>Lehen Hezkuntzako Gradua</b> (38 kreditu)
	<b>Lehena</b>	—	—
I. Practicuma	<b>Bigarrena</b>	8 kreditu	9 kreditu
II. Practicuma	<b>Hirugarrena</b>	12 kreditu	11 kreditu
III. Practicuma	<b>Laugarrena</b>	18 kreditu	18 kreditu

I. Practicumaren helburua ikasleek Ikastetxe bat ezagutzea da, etorkizunean hezkuntzako profesional izango baitira. Horrez gain, behaketa orokorra egin behar dute, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ikasitako ezagutzak integratuz, genero-tratamenduari arreta berezia emanez eta ikasgelako, ikastetxeko eta inguru sozialeko aniztasunera egokituz.

II. Practicuma hirugarren ikasturteari dagokio, eta honako ardatz hauek ditu: etapako ikasleekin irakaskuntza- eta ikaskuntza-esperientzien irakaskuntza garatzea, zikloko eta etapako bizitzan parte hartzea eta norberaren prestakuntza- eta lan-garapenari buruzko autokritika eta hausnarketa egitea. Xedeak hauek dira: ikasleek modu kritikoa hausnarketa egin dezatela, hasierako ezagutza praktikoak testuinguru horietan aplikatzeari buruz, eta sentitzeko, pentsatzeko eta jarduteko beren modua zehazten duten baldintzei buruzko gogoeta egitea.

III. Practicuma aipamenekin (minorrak) eta berrikuntza-proiektuetan parte hartzearekin dago lotuta, eta ikasleei proposatzen die I. eta II. Practicumetan bizitako esperientzia kritikoki berrikus ditzaten, eta hezkuntzako esku-hartze bat diseinatu eta praktikara eraman dezaten, aurreko practicumen berrikuspenetatik ateratako

emaitzak eta ondorioak kontuan izanda eta dagokion ikastetxeko testuinguruan kokatuta.

## 2 HELBURUAK

I. Practicumaren helburu nagusia hau zen: behaketaren eta esku-hartze txikien bidez, ikasle bakoitzak irakasleak ikasgelan eta ikastetxean kudeatu beharreko testuinguruak eta egoera praktikoetako aniztasuna identifikatzea, eta egoera horietan egin daitekeena mugatzen duten baldintzak eta horiek ikasleen ikaskuntzan duten eragina ikustea. Ikasleak hasierako ezagutza praktikoak ekintzetara eramateko moduari buruz modu kritikoan hausnartzea da II. Practicumaren helburu nagusia, eta haren pentsamoldea eta egoera praktikoetan jarduteko modua baldintzatzen duten testuinguru-egoerei buruz ere bai. Hausnarketa hori egiteko, ikasgelako zereginen kudeaketan eta plangintzan aktiboki parte hartuko du, eta curriculum-proposamenak diseinatuko ditu, eta, gero, horien garapenak eta emaitzak ebaluatuko ditu. Hala, II. Practicumaren ikasleak ikaskuntza profesionalerako lehen urratsak emango ditu, ezagutza teorikoak praktikaren bidez eguneratuz eta jarduera garapen-testuinguruaren arabera ebaluatuz.

**Practicum I**en xede nagusia hau da, parte-hartze bidezko behatzez eta esku-hartze txikien bidez, ikasle bakoitzak ezagutu egingo ditu irakasle batek gelan eta ikastetxean kudeatu behar dituen giro eta egoera praktikoak, eta, egoera horietan har daitezkeen jarrerak ezartzen dituzten zirkunstantziak, eta ikasleen ikaskuntzan dituzten ondorioak.

**Practicum II**ren xede nagusia jardunean jarri duen hasierako ezagutza praktikoaz modu kritikoan hausnartzea da, eta hori, egoera praktikoetan pentsamoldea eta jokamoldea ezartzen duen ingurugiro baldintzez. Hausnarketa hori egiteko, biziki parte hartuko du gelako egitekoen kudeatze eta planifikazioan, eta programatu eta diseinatu egingo ditu proposamen kurrikularrak, haien jarduna eta emaitzak neurtzeko. Horrela, ezagutza teorikoa praktikan eguneratzean eta ingurugiroaren arabera bere jarduera neurtzean, Practicum IIko ikasleak lehen urratsak emango ditu bere lanbidea ikasten. Ikasgai honetan ebaluatua izateko (Practicum II), ikasleak gaindituta izan behar du Practicum I.

Ikasgai (II. Practicum) ebaluatua izateko, ikasleak I. Practicum gainditu behar du.

**III. Practicum**a, beste alde batetik, aipamenekin lotuta egongo da. Hezkuntza Fisikoko minorrean matrikulatutako ikasleek dagokion ikasgaiko espezialista den irakasle-tutore batekin egingo dute praktikaldia. Practicum horrek I. eta II. Practicumetan bizitako esperientzien berrikuspen kritikoa izango du abiapuntu, eta, hurrengo fasean, hezkuntzako esku-hartze baten proposamena diseinatu eta praktikara eramango dute (berrikuntza-proiektu didaktikoak, lankidetzazkoak, esku-hartzeak...).

Ikasgai (III. Practicum) ebaluatua izateko, ikasleak I. eta II. Practicum gainditu behar ditu.

### 3 GAITASUNAK

#### 3.1 HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK

HAUR HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK		MAILA
1.	Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa lortzea.	P-I
2.	Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazioari behatzea, giro ona sortu ahal izateko.	P-I
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I
4.	Ikasgelan elkarrengaitzeko eta komunikatzeko prozesuak ezagutzea eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza errazten dituen giroa sustatzeko trebetasunak eta gaitasunak menderatzea.	P-II
5.	Bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko eta adierazteko gaitasunak hobeto menderatzea, ikasgelan eta ikasgelaz kanpo.	P-II
6.	Hezkuntza-prozesua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, eta, batik bat, ikaskuntzari-irakaskuntzari dagokionez, beharrezko teknikak eta estrategiak menderatzea.	P-II
7.	Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin erlazionatzea.	P-II
8.	Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikaren bidez jardunez eta hausnartuz.	P-II
9	Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.	P-III
10	0-3 eta 3-6 urteko ikasle-taldean elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.	P-III
11	Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.	P-III
12	Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.	P-III

### 3.2 LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK

LEHEN HEZKUNTZAKO PRACTICUMAREN GAITASUNAK		MAILA
1.	Ikasgelaren eta haren kudeaketaren ezagutza praktikoa lortzea.	P-I
2.	Ikasgelako elkarrekintza eta komunikazioari behatzea, giro ona sortu ahal izateko.	P-I
3.	Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren aldagai nagusiak identifikatzea.	P-I
4.	Ikasgelan elkarreragiteko eta komunikatzeko prozesuak ezagutzea eta aplikatzea, eta ikaskuntza eta elkarbizitza errazten dituen giroa sustatzeko trebetasunak eta gaitasunak menderatzea.	P-II
5.	Bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko eta adierazteko gaitasunak hobeto menderatzea, ikasgelan eta ikasgelaz kanpo.	P-II
6.	Hezkuntza-prozesua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea, eta, batik bat, ikaskuntzari-irakaskuntzari dagokionez, beharrezko teknikak eta estrategiak menderatzea.	P-II
7.	Teoria eta praktika ikasgelako eta ikastetxeko errealitatearekin erlazionatzea.	P-II
8.	Irakaskuntza-jardueran parte hartzea eta egiten jakiten ikastea, praktikaren bidez jardunez eta hausnartuz.	P-II
9.	Ikastetxe batean ezar daitezkeen jarduera-eremuak hobetzeko proposamenetan parte hartzea.	P-III
10.	6-12 urteko ikasle-taldeen elkarrekintza- eta komunikazio-prozesuak erregulatzea.	P-III
11.	Hezkuntza-erkidegoko eta gizarte-inguruko sektoreekin elkarlanean aritzeko moduak ezagutzea.	P-III
12.	Praktikaren bidez hausnartzea, irakaskuntza gauzatzean ikasleak dituen eskasiak eta indarguneak identifikatzeko eta eskolaren eta hezkuntza-sistemaren erronkak eta mugak ezagutzeko.	P-III

## 4 AURRE PRESTAKUNTZA. JARRAIPEN MINTEGIAK

Praktiketako zentroan egonaldia egin aurretik, ikasleak 8 orduko prestakuntza burutu beharko du. Prestakuntza horretan, **eduki** hauek garatuko dira:

- Dagokion Practicumaren Gida aurkeztea.
- Practicumaren helburuak eta gaitasunak.
- Praktiketako lanaren faseak eta bakoitzean egin beharreko jarduerak.
- Lana egiteko behar diren materialak (egunerokoak, behaketa-gidak, memoriak...).
- Jarraitu beharreko ebaluazio-irizpideak.
- Aurreko ikasturteetan izandako esperientziak (memoriak, gidak, diseinuak, egunerokoak, etab.).
- Praktiken oinarri den prestakuntza teorikoa osatzeko jarduerak.
- Praktiketara zehar, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak hainbat jarraipen-mintegitara (3-4) deituko ditu ikasleak, eta mintegiek 2 orduko iraupena izango dute gutxi gorabehera. Aukera izango dute, halaber, iritziak eta esperientziak elkartrukatzeko, zalantzak argitzeko, zentroko ikasleen hezkuntza-arazoak aztertzeko eta praktiketako memoria egiteko orientazioa jasotzeko. Mintegi horietan garatu beharreko beste **edukiak** dagozkion praktika-planetan jasotzen dira, jarraian adierazitako ataletan:
  - I. PRACTICUMA: hausnarketa-esperientzia Haur/Lehen Hezkuntzan
  - II. PRACTICUMA: praktiketako ikaslearen zereginak
  - III. PRACTICUMA: faseak eta zereginak

Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikasleari jakinaraziko zaio prestakuntza eta jarraipen horiek zein datatan eta nola egingo dituen.

*Prestakuntza-ikastarora BERTARATZEN EZ BADA*, 3 PUNTU galduko ditu AMAIERAKO NOTAN. (*Ez-bertaratze partzialen* kasuan, tutoreak huts egindako orduei dagokien murrizketa proportzionala aplikatuko du).

Era berean, *jarraipen-mintegietara BERTARATZEN EZ DENAK* PUNTU 1 galduko du AMAIERAKO NOTAN, bertaratzen ez den mintegi bakoitzeko.



## **5 TUTORIAZIOA**

Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak eta praktikak garatzen diren ikastetxeko irakasle-tutoreak zuzenduko dituzte praktikak.

Irakasle-tutoreak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak elkarrekin koordinatuko beharko dute, praktiketako ikasleen prestakuntza-beharrak doitzeko eta adosteko.

Ezingo dira irakasle-tutore izan ikasleen senide direnak.

## **6 PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILE BATZUEN FUNTZIOAK**

### **6.1 PRAKTIKA DEKANODETZA**

- Practicumaren Plan Orokorra eta Urteko Plana antolatzea.
- Hezkuntza Ordezkaritzarekin harremanak ezartzea.
- Gizarteko eta hezkuntzako ikastetxeekin, elkarteekin eta erakundeekin harremanak ezartzea.
- Hauekin harremanak estutzea: idazkaritzarekin, ikastetxeko eta titulazioko koordinatzaileekin, irakasle-tutorearekin, sailetako zuzendariarekin eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikasleekin.
- Practicumaren plangintza eta garapena etengabe ebaluatzea.
- Praktika-egutegia proposatzea; gero, Eskolako Batzarrak berretsi beharko du.
- Praktiketari zehar gerta daitezkeen jazoerak ebaztea.
- Praktika-batzordearen bilerak deitzea, praktiken jarraipena egiteko.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari ahalik eta ikastetxe gutxienak esleitzea, tutorizazioa egitea errazagoa izan dadin.

### **6.2 IKASTETXEKO IRAKASLE-TUTOREA**

Ikastetxeko irakasle-tutorea izango da practicumaren ikaslearen erreferenterik hurbilena, eta practicuma tutorizatu beharko du. Horrez gain, funtzio hauek izango ditu:

- Ikastetxean practicuma koordinatzen duen pertsonarekin eta practicumeko unibertsitate-arduradunekin elkarlanean aritzea, bi erakundeen artean egin beharreko lana koordinatzeko.
- Praktiketako ikasleei harrera egitea, ikasturtean zehar ezartzen diren epeetan.
- Praktiketako ikasleari orientazioa ematea dagozkion taldearen edo unitatearen ezaugarriari, ikastetxeko curriculum-proiektuari eta hezkuntza-taldearen edo -unitatearen testuinguruari buruz.
- Practicumean zehar, ikasle bakoitzari laguntza ematea, haien autonomia erraztea eta egin beharreko lanaren erantzukizunaz ohartaraztea.
- Tutorizatzen duen practicumeko ikasleak egin beharreko prestakuntza-jarduera orokorrak gainbegiratzea.
- Praktiketako ikasleek gainerako irakasleekin koordinatzeko zereginetan eta (ahal den heinean) familienganako harremanean parte hartzen laguntzea.
- Ikaslearentzako prestakuntza-ekintza zehatzak proposatzea, hark egin beharreko Practicumaren Plan Orokorren barruan.

- Ikaslearekin batera, haren jardueraren indarguneak eta ahuleziak ebaluatzea, haren jarduna hobetzeko.
- Ikastetxeko baliabideak practicumeko ikaslearen eskura jartzea, dagozkion prestakuntza-ekintzak antolatzeke.
- Amaierako txostena egitea, practicumaren ikaslearen gaitasunak ebaluatzeke.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinaraztea practicumaren egitean izan daitezkeen jazoerak.
- Practicumaren hobetzeko egoki deritzon iradokizunak eta ekarpenak egitea.

### **6.3 HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEKO TUTOREA**

Practicumaren tutorizazioak honako hau esan nahi du:

- Graduen enborreko ikasgai horretako ikasle-talde baten erantzukizuna hartzea eta haien irakaskuntza bere gain hartzea, egutegian ezarritako aurretiko prestakuntza eta jarraipen-mintegiak bere gain hartuta.
- Practicumaren Dekanordetzak eta titulazioaren koordinatzaileak deitutako bileretara joatea.
- Ikaslearen praktika-ikastetxea bisitatzea.
- Ikasleak ikasgelan gauzatu beharreko irakaskuntza horretan orientatzea, teoria eta praktika erlazioa ditzan.
- Planteamendu teorikoei jarraitutasuna ematen saiatzea, ikasleak eduki horiek ikasgeletan aplikatu ahal izateko; horretarako, irakasle-tutorearekin lankidetzan estuan arituko da.
- Beharrezkoa balitz, ikasleekin bilerak egitea praktiketan zehar gerta daitezkeen arazoak eta gertaerak banaka edo taldean ebazteko.
- Ikasleei practicumaren egitaratua ematea.
- Praktiketako ikasleei arreta eta laguntza ematea, ikastetxeetan egiten duten lana gidatzea eta beharrezko orientazioak ematea.
- Ikastetxeetako zuzendariekin edo koordinatzaileekin eta ikasleen irakasle-tutorearekin harremana izatea.
- Ebaluazio-agiriak irakasle-tutoreei bidaltzea, eta horiek bete ostean jasotzea.
- Ikasleei praktika-memoria egitean orientatzea, hori ebaluatzea eta kalifikatzea, ezarritako orientazioen arabera.
- Praktikaldia kalifikatzea, ikasleak gauzatutako lanak, irakasle-tutore bakoitzak egindako ebaluazioa eta ikastetxeetara egindako bisitetan jasotako oharrak kontuan izanik.
- Practicumaren hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egitea.

#### **6.4 IKASLEAK**

- Practicumaren fase guztiak ezagutzea eta horietan parte hartzea (informazio-bilerak, plazen banaketa, memoria ematea...), eta horiek betetzen laguntzea.
- Aurretiko prestakuntzarako ikastaroan eta jarraipen-mintegietan laguntzea eta parte hartzea.
- Praktika-ikastetxeko joate- eta puntualtasun-eskakizunak betetzea, eta hango araudia errespetatzea.
- Irakasle-tutorearekin eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearekin elkarlanean aritzea.
- Practicumaren programa eta haren garapena ezagutzea.
- Hezkuntza-erkidegoko eragile guztiekin harreman adeitsuak izatea.

## 7 EBALUAZIOA

### 1. Praktiken kalifikazioa hauen arabera zehaztuko da:

- Irakasle-tutorearen balorazioa (notaren % 30).
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa:
  - Praktika-txostena (% 40).
  - Ikasleak mintegietan eta aurretiko prestakuntzan egindako lana (% 30).

Praktikak gainditzeko, aipatutako bi balorazioak gainditu behar dira.

### 2. Ikastetxeko egonaldiaren, praktika-txostenaren eta mintegietan eta aurretiko prestakuntzan egindako jardueren kalifikazioak egin diren ikasturtean soilik izango dira baliozkoak.

### 3. Praktikek zer kasutan duten **GUTXIEGI** kalifikazioa eta horrek izango dituen ondorioak:

#### • Txostenak *gutxiegi* kalifikazioa izatea lehen deialdian:

- Kasu horretan, ikasleak beste txosten bat egin beharko du. Ikastetxeko tutorearen nota praktika-egonaldiari dagokion ikasturteko deialdiak kalifikatzeko soilik izango da baliozkoa.

#### • Txostenak *gutxiegi* kalifikazioa izatea bigarren deialdian:

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

#### • Ikastetxeko irakaskuntza-praktiketan *gutxiegi* kalifikazioa izatea:

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

#### • Mintegietan eta aurretiko prestakuntzan *gutxiegi* kalifikazioa izatea:

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

#### • Praktiketako ikastetxera justifikaziorik gabe bi aldiz huts egitea:

- Ikasleak praktika-egonaldia eta dagokion txostena errepikatuko ditu.

### 4. Praktika-txostenak idazkaritzan eta horretarako ezarritako epeetan soilik eman daitezke. Ikasleak horrela egiten ez badu, **EZ AURKEZTUA** izango du kalifikazioetan.

## 8 PRAKTIKETAKO TXOSTENARI BURUZ

Atal honen helburua ez da praktika-txostena osatuko duten eduki guztiak zehaztea (practicum bakoitzean lan desberdinak gauzatu behar baitira), baizik eta txostena egiteko elementu komunak eta oinarriak jasotzea.

Ez dugu ahaztu behar **alderdi formalak** ere ebaluatuko direla, besteak beste: aurkezpena, ortografia, adierazpena, koherentzia eta erreferentzia bibliografikoak.

Bestalde, lan, proposamen eta esku-hartze didaktiko guztiak modu koherentean **arrazoitu eta justifikatu** behar dira. Horretarako, guk uste beharrezkoa dela ikasleak hainbat gairi buruzko informazioa lortzea, hala nola hezkuntza-erkidegoa osatzen duen inguruaren ezaugarri sozialak eta kulturalak, ikastetxearen antolakuntza eta bertako hezkuntza-proiektua.

Jarraian, **praktika txostenean falta ezin diren atalak** jasotzen ditugu:

1. **Azala** (ikaslearen, praktiketako zentroaren eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen datuekin)
2. **Aurkibidea** (orrialde-zenbakiak adierazita).
3. **Sarrera**: atal honetan, ikasleak lana bere osotasunean ulertzeko beharrezkoa den informazio guztia emango du. Bertan azalduko ditu ere praktiketako zentroa “desberdin” bihurtzen duten ezaugarriak, zer motibazio izan dituen sekuentzia edo esku-hartze proposamen didaktiko hori aukeratzeko (hala beharrezkoa denean) eta praktiketari izan dituen erraztasunak eta zailtasunak.
4. **Zentroa eta eskolako erkidegoa**: ikasleak zentroan aurkitutako errealitateen berri emango du atal honetan, eta inguruaren ezaugarriez, aniztasunaz eta koloreez, familien parte-hartzeaz eta eskolaz kanpoko parte-hartzeaz, zentroko hezkuntza-ildoaz, espazioaren eta denboraren antolakuntzaz, baliabideez, proiektu berritzaileetako parte-hartzeaz, irakasleen “gogoaz”... mintzatuko da.
5. **Irakaskuntza-praktikak**: egiten duen practicumaren arabera, ikasleak azaldu egingo du zer saio, esku-hartze eta sekuentzia didaktiko egin dituen, tutoreek hala adostuta eta onartuta.
6. **Egunerokoa-hausnartzea (derrigorrezkoa Practicum I-ean, gomedagarria Practicum II eta III-an)**: tresna hau bizipenak erregistratzeko erabili ohi da, eta pentsamendu pertsonala eta profesionala garatzeko euskarria da. Oso garrantzitsua da informazioa modu sistematikoan jasotzea, gertaerak nola garatu diren ulertzeko. Behaketa-tresna hau praktiketari bizitako esperientziak erregistratzeko sistema irekia da, eta baita egindako jardueren gainean hausnartzeko tresna ezin hobea ere.
7. **Hausnarketa**: atal honetan, praktika-esperientzia aztertzen da. Bizitako egoera “zailak” azaltzeak eta nabarmentzeak ikasleari lagundu egingo dio irakaslearen zereginei buruzko galderak formulatzen eta etorkizunean hobetu beharrezko alderdiak antzematen. Era berean, hau da hezkuntza-praktikaren indar-guneak eta ahuleziak eta Hezkuntza eta Kirol Fakultatean egindako lana ebaluatzeko unea.

8. **Bibliografia.**

9. **Eranskinak.**

## **9 MEMORIAK ITZULTZEA PRAKTIKETAKO IKASLEEI**

Euskarri material bakarra duten praktika lan eta memoriak irakasleak gordeko ditu hurrengo ikasturtea amaitu arte. Behin aktak sinatu ostean, lanok ikasleei itzuliko zaizkie, soilik lanaren edo memoriaren euskarri edo kopia bat baino gehiago baldin bada tartean eta ikasleek propio bueltatzea eskatuz gero.

Era berean, beharrezkoa da egilearen baimena edukitzea memoria osorik edo partzialki argitaratu edo erreproduzitzeko edo beste helburu baterako erabiltzeko (EHUren araudia, 49. artikulua).

## 10 KRONOGRAMA

	<b>ESTANCIA CENTROS DE PRÁCTICAS</b>	<b>PERÍODO</b>	<b>CRÉDITOS</b>
PRÁCTICUM I	5 semanas (30 horas semanales)	Octubre	Infantil:8 cr. Primaria:9 cr.
PRÁCTICUM II	7 semanas (30 horas semanales)	Febrero-marzo	Infantil:12 cr. Primaria:11 cr.
PRÁCTICUM III	10 semanas (30 horas semanales)	Noviembre-diciembre- enero	Infantil:18 cr. Primaria:18 cr.



## 11 BIBLIOGRAFIA

- BALLESTÍN GONZALEZ, B. (2009). La observación participante en primaria: ¿un juego de niños? Dificultades y oportunidades de acceso a los mundos infantiles. *AIBR Revista de Antropología Iberoamericana*, Vol 4, nº 2, pp 229-244
- BOLÍVAR, A. y DOMINGO, J. (2007). *Prácticas eficaces de enseñanza*. Madrid: PPC.
- CALBÓ ANGRILL, M. (Coord.) (2009). *Guía para la evaluación de competencias en el Prácticum de Maestro/a*. Barcelona: AQU Catalunya.
- CANO, ELENA (2005). *El portafolios del profesorado universitario*. Barcelona: Octaedro. ICE-UB.
- CASINO, A. M<sup>a</sup>. (2007). *El prácticum de la diplomatura de Magisterio en la Universidad Católica de Valencia: formación inicial*. Valencia: Universidad Católica de Valencia San Vicente Mártir.
- COLL, C. (2002). *Observación y análisis de las prácticas de educación escolar*. Barcelona: UOC.
- CORIAT, M., ROMERO, A. y GUTIÉRREZ, J. (Coord.) (2003). *El prácticum en la formación inicial del profesorado de Magisterio y Educación Secundaria. Avances de investigación, fundamentos y programas de formación*. Granada: Universidad de Granada.
- DE MIGUEL DIAZ, M. (Coord) (2006). *Metodología de enseñanza y aprendizaje para el desarrollo de competencias*. Madrid: Alianza Editorial.
- DEL VAL, J. (2001): *Aprender en la vida y en la escuela*. Madrid: Morata.
- DREYFUS, H.L. Y DREYFUS, S.E. (2005). Expertise in real World contexts. *Organization studies*, 26(5): 779-792.
- ELLIOT, J. (2004). Using research to improve practice: the notion of evidence-based practice. En Day, C., Sachs, J. (eds.). *International handbook of the Continuing Professional Development of Teachers*. Milton Keynes: Open University Press.
- EVERTSON, J.M. y GREEN, J. (1998). "La observación como indagación y método". En WITTRICK, M.C. (Ed.). *La investigación de la enseñanza, II. Métodos cualitativos y de observación*. Barcelona: Paidós MEC.
- FENWICK, T.J. (2003). *Learning through Experience: Troubling Orthodoxies and Intersecting Questions*. Malabar, Fla: Krieger Publishing Company.
- GAVARI STARKIE, E. (Coord.) (2005). *Estrategias para la observación de la práctica educativa*. Madrid: Ramón Areces.
- GAVARI STARKIE, E. (Coord.) (2007). *Estrategias para la intervención educativa. Prácticum*. Madrid: Ramón Areces.
- HAGGER, H. Y HAZEL, H. (2006). *Learning Teaching from Teachers: Realising the Potential of School-Based Teacher Education*. Buckingham, GBR: Open University Press.
- HOLLY, M.L. (1989). "Writing to grow. Keeping a personal-professional Journal". Heinemann. Portsmouth. New Hampshire

- KLENOWSKI, V. (2004) *Desarrollo del Portafolios para el aprendizaje y la evaluación*. Madrid: Narcea.
- KOLB, D. (1984). *Experiential Learning: Experience as the source of learning and development*. Nueva Jersey: Prentice Hall.
- LEWIS, C. (2002). *Lesson Study: A handbook of teacher led instructional improvement*. Philadelphia: Research for Better Schools, Inc.
- LYONS, N. (1999) (comp.). *El uso de los Portafolios. Propuesta para un nuevo profesionalismo docente*. Nueva York: Columbia University.
- MARTINEZ, C. (Coord.) (2004). *Técnicas e instrumentos de recogida y análisis de datos*. Madrid: UNED.
- MERLEAU-PONTY, M. (2002). *Causeries 1948*. Paris: Editions du Seuil.
- MERRIAN, L. y CAFFARELLA, M. (1991). *Learning in Adulthood: a comprehensive guide*. San Francisco: Jossey Bass.
- MEZIROU, J. Y OTROS (EDS.) (2000). *Learning as transformation: Critical perspectives on a theory in progress*. San Francisco: Jossey-Bass.
- MEZIROU, J. Y OTROS (EDS.) (2000). *Learning as transformation: Critical perspectives on a theory in progress*. San Francisco: Jossey-Bass.
- MOLINA, S. (1998): "Bases para un nuevo diseño de las prácticas escolares de los futuros maestros", in. *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado*. Nº 33, pp.161-180.
- MONEREO, C. (Coord.) (2000). *Ser estratégico y autónomo aprendiendo*. Barcelona: Graó.
- PASCUAL, M<sup>a</sup> T. (Ed.) (2007). *Prácticum: orientaciones para el Plan de Prácticas de la Diplomatura de Magisterio en la Universidad de La Rioja*. Logroño: Universidad de La Rioja.
- PÉREZ GÓMEZ, A. (1997). "Socialización profesional del futuro docente en la cultura de la institución escolar. El mito de las prácticas" in *Revista Interuniversitaria de Formación de Profesorado*. Nº 29, pp. 125-140.
- PEREZ GOMEZ, A.I. (2010). El sentido del prácticum en la formación de docentes. La compleja interacción de la práctica y la teoría.. En Perez Gomez, A.I (coord.). *Aprender a enseñar en la práctica: procesos de innovación y prácticas de formación en la educación secundaria*. Grao: Barcelona. Pp 89-106.
- PORLÁN, R. (1987). "El maestro como investigador en el aula. Investigar para conocer, conocer para enseñar". *Revista Investigación en la escuela*, 1 (pp.63-69).
- RODRÍGUEZ MARCOS, A. (2002): *Cómo innovar en el Prácticum de magisterio*. Madrid: UAM.
- SCHÖN, D. (1987). *Educating thereflective practitioner: Towards a new design for teaching and learning in the professions*. London: Josey Bass.
- SCHÖN, D. (1992). *La formación de profesionales reflexivos*. Barcelona: Paidós.

- SHORES, E. y GRACE, C. (2004). *El portafolios paso a paso. Infantil y Primaria*. Barcelona:Graó.
- STENHOUSE, L. (1975). *An Introduction to Curriculum Research and Development*. London: Heinemann Educational.
- STRATI, A. (2007). Sensible knowledge and practice-based learning. *Management Learning*, 38(1), 61-77.
- TRILLO, F. (2004). Competencias discentes de carácter socioprofesional. En Medina A. y Cacheiro, M. L. (Coords.): *Jornadas universitarias sobre Competencias Socioprofesionales de las Titulaciones de Educación*. Madrid: UNED. Actas en CD.
- ZABALZA, M. (2004). *Diarios en clase: un instrumento de investigación y desarrollo profesional*. Madrid: Narcea.